# GERNIKA-LUMO



# GERNIKA-LUMO
## 2010 urtea



# Bederatzigarren Idazlan Koadernoa



## Lehen Hezkuntza

**Argitaratzailea:**

- Gernika-Lumoko Euskera Zerbitzua eta Hezkuntza Saila

**Laguntzaileak:**

- Allende Salazar Ikastetxea.
- Barrutia Eskualde Ikastetxea.
- Mertzede Ikastetxea.
- San Fidel Ikastola.
- Seber Altube Ikastola.

**Portadaren egilea:**

- Irati Etxebarria Urkiza (LH 6. mailako ikaslea)

**Babesleak:**

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (HPS)
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila (Euskera Zuzendaritza)

**Maketa eta Inprimaketa:**

- Graficas Amorebieta.

**2010ko edizioa.**

# Hitzaurrea

Heldu iezaiozu bederatzigarrenari, irakurle! Bederatzi baitira jadanik, Gernika-Lumoko ikasleek osatutako ametsezko abenturak batzen dituen koadernoak.

Zabaldu ezazu bederatzigarrena, irakurle! Hasieratik bukaerara, ipuin zoragarriak topatuko baitituzu orri mehe, baina aldi berean sendo hauetan.

Irakur ezazu bederatzigarrena, irakurle! Oheratzerakoan, amets goxoak egiten lagunduko baitizu hizki eta lerroen jolas honek.

Topa ezazu bederatzigarrenean zurea, idazle! Agian, bertan zure izena aurkituko duzu eta, irudimenaz osatutako lerro sorta aberatsaren atzetik idatzirikoa. Eta ez badago ere, segi irakurleon egunak, iluntzeak eta gauak alaitzen dituzten abenturak marrazten.

Goza ezazu bederatzigarrena!

Iñaki Gorroño Etxebarria
Hezkuntza Arloko Zinegotzia



Idoia Fernández Antia
Euskera Arloko Zinegotzia



# Aurkibidea


| IZENA | MAILA | IPUINA | Orr. |
|---|---|---|---|
| Itxaso Olea Urionabarrenetxea | L.H. 1. zikloa | Arrain beltza | 7 |
| Ainhoa Alberdi Sangroniz | L.H. 1. zikloa | Izurde aberatsa | 9 |
| Aitor Lavin Elgezabal | L.H. 1. zikloa | Estralurtarra eta baloia | 10 |
| Nicole Ferraris | L.H. 1. zikloa | Txapeldun arraroa | 12 |
| Iker Silva | L.H. 1. zikloa | Ikastolako komunaren misterioa | 13 |
| Maider Hernandez Garcia | L.H. 1. zikloa | Iturri magikoa | 15 |
| Sara Iturriarte Basterretxea | L.H. 1. zikloa | Katu galdua | 16 |
| Eneko Duñabeitia Madariaga | L.H. 1. zikloa | Piratak itsasoan | 18 |
| Eneko Orue | L.H. 1. zikloa | Hiru txakurrak | 20 |
| Ibai Unamuno Ruiz | L.H. 2. zikloa | Zereginak beti zeregin | 21 |
| Gorka Petralanda<br>Jon Zallo<br>Ander Akordagoitia | L.H. 2. zikloa | Espazio extralurtarrak | 24 |
| Maite Rafael Lezamiz | L.H. 2. zikloa | Hosto txikiren abentura handia | 26 |
| Iker Blankenaauw Baranda | L.H. 2. zikloa | Unai eta lagun berezi bat | 28 |
| Iker Ansotegi Vallejo de Olejua | L.H. 2. zikloa | Moesen bitxia | 30 |
| Paul Aberasturi | L.H. 2. zikloa | Rai handikia | 32 |
| Amaia Iruskieta Bilbao | L.H. 2. zikloa | Iratxo mihiluzea | 35 |
| Maitane Acebedo Albizu | L.H. 2. zikloa | Amets harrigarria | 38 |
| Maddi Gerrikaetxebarria Albizu | L.H. 2. zikloa | Leire eta bere lagun berria | 40 |
| Samuel Nita Kalentin | L.H. 3. zikloa | Artur galtzagorri txikia | 43 |
| Elene Jainaga Larrinaga | L.H. 3. zikloa | Gaztainak batzen | 46 |
| Beñat Bilbao Landa | L.H. 3. zikloa | Saturnoren eraztunak | 49 |
| Ane Ardanza | L.H. 3. zikloa | Zahar edo berri? | 52 |
| Leire Olaeta Zubiaga | L.H. 3. zikloa | Denboren makina | 54 |
| Julen López Gómez | L.H. 3. zikloa | Ane eta azeri txikia | 58 |
| Amaia Asla | L.H. 3. zikloa | Barraskilo bat espazioan | 60 |
| Agate Txurruka Foruria | L.H. 3. zikloa | Uxue Lin | 63 |
| Maider Urlezaga | L.H. 3. zikloa | Anaien bihurrikerien berririk<br>ez dute gurasoak | 65 |
| Edu Vallejo Arginzoniz | L.H. 3. zikloa | Marinelaren istorioa | 68 |

# 9.ik Idazlean

LEHEN HEZKUNTZA

2010



# Koadernoa



Itxaso Olea Urionabarrenetxea

"Igerilekura joatea dut gogoko"

# Arrain beltza

## Arrain beltza

Bazen behin, Xabi izeneko mutiko bat. Mutil zintzo eta alaia zen.

Xabik arrain beltz baten jabea izan nahi zuen. Bere urtebetetzean gurasoek arrain gorri bat oparitu zioten. Xabierri ez zitzaion gustatu eta negar batean hasi zen.

Hurrengo egunean, mutilak janaria ematea pentsatu zuen. Ogi zati bat eman zion baina arrainak ez zuen jan. Orduan Xabik bere otarteko txokolate beltz zati bat eman zion eta arraintxoak azkar-azkar dena ziztu bizian jan zuen.



Gauean lotara joan baino lehen, arraina agurtzera joan zenean . . . . . zer demontre gertatu zen?
Arraina beltz-beltz zegoen. Xabi hori ikusita poz-pozik jarri zen.
Gezurra ala egia? Sudurraren ondoan, legia.



L.H. 1.zikloa

## Ainhoa Alberdi Sangroniz

"Txakurrekin jolastea gustatzen zait"



# Izurde aberatsa

IZURDE ABERATSA

Bazen behin izurde bat oso handia zena, lihurria eta potoloa ere.
Egun batean izurdea igerian zihoala, kutxa bat topatu zuen.
Baina kutxa hori itxita zegoen. Orduan izurdeak arrain bati
galdetu zion:
-Aizu! Badakizu non dagoen kutxa honen giltza?
-Jakina badakit! Gainera nik daukat!
-Tori, zuretzat! -esan zion arrainak-
-Eskerrik asko! -esan zion pozarren izurdeak-
Izurdeak kutxa ireki zuenean diru piloa aurkitu zuen
eta horrenbeste diruarekin aberastu egin zen.









L.H. 1.zikloa

Aitor Lavin Elgezabal

"Nagusitan futbolaria izatea gustatuko litzaidake"

# Estralurtarra eta baloia

ESTRALURTARRA ETA BALOIA

Bazen behin Martzi izeneko estralurtarra. Saturnon bizi zen baina Lur planetara gustatzen zitzaion joatea.

Behin bere espaziontziarekin Gernikara heldu zen eta ume batzuk baloiarekin jolasten ikusi zituen. Martziri inbidia eman zion eta baloiak lapurtzea pentsatu zuen.

Gauetan umeen etxeetara joatea erabaki zuen umeak lo zeudenean baloiak kentzeko. 6,7 baloi ostu zituenean zaku handi batean sartu eta espaziontzian gorde zituen.



Hurrengo egunean umeak konturatu egin ziren eta plan bat egitea bururatu zitzaien.

- Gabaz lapurra harrapatzeko izarrik geratuko gara - esan zuen Inaxiok.

Estralurtarraren espaziontzia iritsi zenean, umeak ezkutatu egin ziren eta aldenda zenean pieza bat kendu zioten.

Handik denbora gutxira, Martzi beste zaku handi batekin agertu zen eta espaziontzira abiatu zen ihes egiteko armoarekin.

Martzik motorra ezin zuenez martxan jarri, Kanpora irtetea erabaki zuen.

Han zeuden ume guztiak itxaroten.

- Baloi guztiak ematen badizkiguzu, pieza hau emango dizugu- esan zion Inaxiok guztiz haserreturik.

Trukea egin zutenean Martzi oso triste gelditu zen eta orduan umeek baloi bat eman zioten.

Azkenean, partidu bat egin zuten eta Martzi oso pozik itzuli zen Saturnora.



L.H. 1.zikloa

Nicole Ferraris



"Niri jolastea asko gustatzen zait"

# Txapeldun arraroa

TXAPELDUN ARRAROA

Bazen behin gizon bat Peru izenekoa. Herrialde arraro batean bizi zen. Herri honetan zuhaitzak arrosak dira, txakurrek buruan kapelak dituzte, etxeak eskailera mokukoak dira eta autoek gurpil karratuak dituzte. Animalia arraroak ere daude: oiloak; botak eta aterkiarekin jantzita, sugeak gorbata daramate eta txoriak betaurrekoak dituzte.

Herrialde honetan lehiaketa arraroak ere badaude eta jendeak irabazteko gauza arraroak asmatu behar izaten ditu. Batek sagar karratu asmatu zuen eta beste batek argi ikusezin bat. Peruk txapelketa irabazteko herriko parkean zuhaitz berde bat landatu zuen.

Herriko jendea arbola ikusi zuenean liluratuta geldit zen, txalotu hasi ziren, oso arraroa zelako. Lehiaketaren lehenengo saria Peruk irabazi zuen.





Iker Silva

"Xakera jolastea eta intsektuak hartzea asko gustatzen zait"

# Ikastolako komunaren misterioa

## IKASTOLAKO KOMUNAREN MISTERIOA

Bazen behin mutiko bat Jon izenekoa eskolaz aldatu behar zuena. Bere lehenengo egunean oso urduri zegoen eta ez zuenez eskola ezagutzen galdu egin zen. Ibili eta ibili komunetara heldu zen. Han itzal arraro bat ikusi zuen eta ihes egin zuen. Azkenean bere gelara iritsi zen. Ikastola amaitu zenean bere etxera joan zen eta han komunean zegoena zer ote zen pentsatzen geratu zen. Hurrengo egunean ohetik altxatu bi gaileta jan eta ikastolara joan zen. Berriro ere komunera joan zen zer zegoen ikustera. Heldu zenean berriro ere itzala ikusi zuen, eta gainera zarata arraroak, Ez zen ikustera ausartu eta joan egin zen. Ikastolako jantokian mutiko bat ezagutu zuen, Mikel izenekoa. Jan eta gero Jon eta Mikel berba egiten hasi ziren.




Jonek galdetu zion ea abenturak eta misterioak gustatzen bazaizkion. Mikelek baietz esan zuen. Orduan Jonek galdetu zion ea inoiz entzun bazuen zer edo zer gertatu(gertatu) dela hirugarren solairuko mutilen komunetan. Mikelek erantzun zion ez zuela ezer entzun, eta galdetu zion zergatik galdetu zion hori. Orduan Jon azaltzen hasi zen beste egunetan komunean ikusi zituen gauza arraroak.

Mikelek esan zion ea zer egiten zuen hirugarren pisuan, zertarako joan zen. Galduta zegoelako erantzun zion Jonek. Orduan Jonek Mikeli proposatu zion gauean komuna ikusten



joateko. Mikel zalantzan zegoen, beldur apur batekin, baina azkenean onartu egin zuen. Gauean ikastolako atean elkartu ziren, beldurtuta. Linternak eskuetan sartu ziren. Denbora piloa eman zuten hirugarren pisura heltzeko, bata bestearen atzetik zeudelako denbora guztian. Azkenean hirugarren pisura heldu zirenean komuneko argia piztuta zegoen. Han itzala zegoen eta zarata arraroak ere. Biak beldurrez dardarka zeuden. Azkenean Jon begiratzera ausartu zen eta, horra hor katu txikitxo bat zegoela ikusi zuen, eurek baino izutuago zegoena. Hirurok lasaitu zirenean, bi mutilek katua hartu eta etxera eraman zuten. Eta handik aurrera oso lagun minak izan ziren hirurok.

Hala bazan eta ez bazan sartu nadila kalabazan eta atera nadila Gernikako plazan.







Maider Hernandez Garcia

"Gehien gustatzen zaidana da nire lagunen etxera joatea, jolasten eta mozorratzen "

# Iturri magikoa

ITURRI MAGIKOA

Behin batean bazegoen iturri magiko bat. Ume asko joaten zen berarengana ura edaten, eta dantzan hasten ziren. Lagun asko zuen iturriak. Baina egun batean mutil bat heldu zen eta iturri magikoa hartu zuen beste herri batera eramateko. Iturriaren lagunak triste-triste geratu ziren. Gure iturria ere oso triste jarri zen, lagun barik gelditu zelako. Hala ere inok ez zuen jakin iturria magikoa zenik. Orduan iturriaren lagunak bera bisitatzera joatea pentsatu zuten. Iturria poz-pozik jarri zen bere lagunak ikustean eta horrela egun osoa dantzan egon ziren.





L.H. 1.zikloa

## Sara Iturriarte Basterretxea

"Kirola asko gustatzen zait eta
irakurtzea eta idaztea ere
gogoko ditut"



# Katu galdua

## KATU GALDUA

Behin batean, etxean oso asperturik nengoen. Ez zegoen inor nirekin jolasteko, nire lagunak Bilbora zinemara joan ziren eta, filme bat ikustera.

- Ama, kalera irten nahi dut - esan nion nire amari.

- Bai, joan zaitez eta ondo igaro - erantzun zidan amak.

Kalera irten nintzenean, katutxo bat ikusi nuen baztertxo batean. Hurbildu nintzen eta katuak irribarrea egin zidan. Orduan katua hartu eta etxera abiatu nintzen.

Ama ere oso pozik jarri zen, berak ere katuak gustuko zituelako, baina ez ginenez konturatu atea irekita utzi genuela, katuak ihes egin zuen.

Ordu asko eman genuen gure katutxoa topatzen.

Azkenean, beste katu-eme batekin, parkeko aulki baten azpian, aurkitu genuen. Biak maiteminduta zeudela konturatu ginen eta oso kezkaturik, nire amari galdetu nion:

— Zer egingo dugu orain, ama?. Katutxo biak eraman ahal ditugu etxera?

Amak irribarrez, nik entzun nahi nuena erantzun zidan:

— Bai umetxo, biak eramango ditugu etxera.

Eta harrezkero, denok elkarrekin poz-pozik bizi gara.

Bi eta bi lau, amaitu da ipuin hau.





L.H. 1.zikloa

## Eneko Duñabeitia Madariaga

"Pirata izan nahi dut!"

# Piratak itsasoan

PIRATAK ITSASOAN



Behin batean uharte txiki batean hiru pirata onak zeuden. Batek Krank zuen izena, beste batek Krunk zuen izena eta beste batek Kronk. Han bertan itsasontzi handi bat heldu zen eta kanoiak botatzen hasi ziren. Kronk harri baten atzean izkutatu zen. Bigarrena, Krunk, sumendi baten atzean eta azkena, Kronk, gurdi baten atzean. Zazpi itsasoetan nabigatzen zeudela olagarro erraldoi bat agertu zen eta arku batetik geziak bota tzen hasi ziren. Azkenean hil egin zuten. Nabigatzen jarraituz botila bat ikusi zuten itsaso erdian. Krankek uretara salto egin zuen eta botila hartu zuen. Igo zenean botila ireki zuten eta Krankek esan zuen: - Arraioa!



Hau mapa bat da! Begira horko marra hori, orain zeharkatu dugu. Goazen begiratzera!

-Goazen ikustera!

Haraino heldu zirenean Kronker buzoa jantzi eta uretara jauzi egin zuen. Han behean itsasontzi bat ikusi zuen marrazoz inguratuta baina azkenean lortu zuen itsasontzira sartzea. Halako batean gizaki eskeleto bat ikusi zuen. Orduan korrika zihoala, estropezu egin zuen zerbaitekin. Goroldioz estalita zegoen eta arineketan gora joan zen.

Beste biei kontatu zien. Berriro jeitsi zen eta gora ekarri zuen goroldioz estalitako gauza hura. Itsasontzian goroldioa kendu zuten eta... Altxorra aurkitu zuten! Poz-pozik hondartzara joan ziren. Eta hartako jendea agertu zen eta kontatu zieten. Denak batera zoriontsu bizi izan ziren. Altxorra platanoz eta sagarrez beteta zegoen.

Hala bazan eta ez bazan sar dadila itsasontziko zotoan. AMAIERA





Eneko Orue

"Futbola eta esku-pilota gustuko ditut"

# Hiru txakurrak

## HIRU TXAKURRAK

Baziren behin hiru txakur baserri batean bizi zirenak. Xapin, Bizkor eta Nabar deitzen ziren.

Egun batean orein batzuk ikusi zituzten eta haien atzetik joan ziren. Oreinak oso bizkorrak ziren eta txakurrak ezin izan zituzten harrapatu. Txakurrak konturatu zirenerako baso barruan galduta zauden. Oso triste jarri ziren ez zekitelako nola moldatu baso barruan. Halako batean azeri bat ezagutu zuten, honek irakatsi zien basoan nola bizi eta janaria nola aurkitu. Handik denbora batera, basoan zeudela berriro oreinak ikusi zituzten eta eurengana joan ziren barkamena eskatzera ikaratzeagaitik eta segitzeagaitik.

Orduan oreinak poz-pozik geratu ziren eta txakurrei etxeko bidea erakutsi zien. Halako batean hiru txakurrak beraien baserria ikusi zuten berriro. Xapin, Bizkor eta Nabarrek izugarrizko poza hartu zuten.

Ordutik ona beti konpondu izan dira ondo oreinekin.





Ibai Unamuno Ruiz

"Kirola eta irakurketa gustoko ditut"

# Zereginak beti zeregin

## Zereginak beti zeregin

- Kikiriki! - Kikiriki!

Hasi zen eguna Etxebarrieta baserrian. Bai, nire baserri eder-ederrean. Mantapetik irten eta gosaltzera joan nintzen. Hantxe zegoen Kattalin, nire emazte maitea. Elkarrekin bapo-bapo gosaldu ondoren, neure zereginetara joan nintzen, hau da, behiei eta txerriei jatekoa eman eta garbarara, artoa garaun-tzera.

Egunaren argitasuna nabaritu nueneran, eskaila-rak jaitsi eta traktora arrankatu nuen. Astelehena zen. Merkatura heldu eta lekutxoa dotore-dotore apaindu, zera esan nion nere buruari:

- Ea hau guztia saltzen dugun! Baina, dagoen krisiarekin ez dakit ba!

Gainera oilotegian batutako arrautza fresko freskoak eta esnea salgai nituen.

- Arrautza dozena 90 zentimotan! Ez osasun aukera

hau galdu! -oihukatzen nuen. Hori entzutean, izugarrizko gendetsa Kubildu zitzaidan. Pila bat dozena saldu nituen.

Lortutako diruarekin, animalientzako pentsua erosi eta saku bat kantzeratzean, plausta! erori egin nintzen. Eskerrak kolpetxoa besterik ez zela.

Harka biak jaso eta traktora kargatu ondoren baserrirantz abiatu nintzen. Ukuiluan nengoela, oihu bat entzun nuen:

- Ai ene! Nireak egin du!

Kattalin zen, beldurtuta, sukaldetik sagu txiki bat biraka zebilelako. Gazta zati bat hartu eta ziloan jarri nuen.



- Eskerrik asko Jose Mari! zu bezalako gizonik ez dago!

- Bai, lasaitu zaitez berehala! -erantzun nion.

Idiak belarra jatera atera nituenean, korrikan zezen bat zetorren snf! snf! eginez. Eskerrak alde egin nuela, bestela orain zeruan

egongo nintzateke.

Berehala, entsalada prestatzeko baraazki osasuntsuak hartu eta bazkaldu ondoren, lo kuluxka egitera joan nintzen. Jaiki bezain laister frontoira esku pilota partidak ikustera. Lagunekin momentu alaiak igaro eta, berriz, neure zereginetara afaldu eta lotara! Beraz, zereginak beti zeregin!

Zortzi zati bi lau amaitu zaigu kontakizun hau.



L.H. 2.zikloa

Gorka Petralanda,
Jon Zallo eta
Ander Akordagoitia

"Rugbyzale amorratuak gara"

# Espazio extralurtarrak

## EZPAZIOKO EXTRALURTARRAK

Orain dela hamar urte, 1.999 urtean Europako eta Ameriketako astronautek Kohete berezi bat bidali zuten Saturnora.
Kohetea supositorio erraldoi baten modukoa zen.
Ate txiki bat zuen eta bere goikaldean Goazen II jartzen zuen letra handietan. Laranjak bezalako kolore distiratsua erakusten zuen kanpokaldetik. Kohete horrek robot bat eraman zuen Saturnori buruz gehiago jakiteko..
2.000 urtean Nasako eta Europako agentzien artean estazio espazial bat instalatu zuten. Bertako teleskopio ezpazialetik ezpaziontzi arraro bat ikusi zuten. Ezpaziontzian, martzianoak zeuden. Nasako eta Europako estazio ezpazialetik ezpaziontzi batzuk bidali zituzten beraiek harrapatzeko. Orduan, extralurtarrak eskapatzen hasi ziren eta amerikarrak eta europakoak haien atzetik joan ziren. Egunak eta egunak segika egin ondoren martzianoak izozten hasi ziren, hotz handia egiten zuelako. Astronautek martzianoak harrapatu zituzten, lurrera ekarri eta munduko museo guztietatik erakutsi zituzten kristalezko izotz makinetan sartuta.
Azkenean, espazioko laborategi zientifikora eraman

zituzten martetarrak berriro bizirik jarri zirelako.
Martzianoak pertsonen lagunak egin ziren betiko!





L.H. 2.zikloa

## Maite Rafael Lezamiz

"Niri kirola egitea asko gustatzen zait eta dantzatzea ere bai"

# Hosto txikiren abentura handia



HOSTO TXIKIREN ABENTURA HANDIA

Udako egun eguzkitsu batean haritza izeneko zuaitz batean "Hosto txiki" izeneko hosto bat bizi zen. "Hosto txiki" berdea eta luzea zen, baina haritzaren hostoetatik txikiena eta politena. "Hosto txiki"k marra batzuk, begi marroiak eta aho txikia zituen. "Hosto txiki"ri altuera handiak beldurra ematen zion, orduan beheko aldeko adar batean bizi zen. Uda zenez, umeak parkera joaten ziren jolastera eta dibertitzera. "Hosto txiki" ere asko dibertitzen zen umeei begira zegoela. Baina "Hosto txiki"rentzat ez zen beti uda baizik eta udazkena bidean zegoen. Udazkena heldu zenean "Hosto txiki" eta bere lagunak horitzen eta marroitzen hasi ziren baina "Hosto txiki" berdin. berdin dibertitzen jarraitzen zuen. Bere lagun batzuk lurrera erortzen hasi ziren baina Hosto txiki ez. Negua bidean zegoela "Hosto txiki"



adarraren puntan zegoen erortzeko, baina ez zen erortzen. Hurrengo gauean "Hosto txiki" lo zegoela haize bolada bat etorri zen eta "Hosto txiki" zarata batez erori zen:

- Aaaaaa!!!.... Hurrengo goizean garbitzailea etorri zenean "Hosto txiki lurrean zegoen:
- Lagundu!, ezin naiz altxatu. Baina garbitzaileak ez zion entzun, eta erratz batekin hartu zuen eta erratzaren palan jarri zuen; baina han ez zegoen "Hosto txiki" bakarrik baizik eta intxaur ondoaren hosto bat ere bazegoen eta biak negarrez. Intxaur ondoaren hostoa ere bere arboletik txikiena zen eta esan zion "Hosto txiki"ri:
- kaixo zelan daukazu izena?
- Nik "Intxaur hosto" eta zuk?
- Nik "Hosto txiki". Ni oso triste nago ezin ditut berriro umeak ikusi jolasean.
- Ni ere triste nago.

Garbitzaileak "Hosto txiki" eta "Intxaur hosto" zakarrontzi handi batera eraman zituen. Baina garbitzailea joan zenean, bi umek zakarrontzitik bi hosto multzo hartu zituen jolasteko eta han barruan "Hosto txiki" eta "Intxaur hosto" eta bi umeak palu batekin hostoak mobitzen zeudela "Hosto txiki eta "Intxaur hostori" kilimak egiten zizkieten eta barrezka hasi ziren eta hortik aurrera gure bi hosto lagunak poz-pozik bizi izan ziren.





L.H. 2.zikloa

Iker Blankenaauw Baranda

"Niri mendira joatea, liburuak irakurtzea eta marraztea gustatzen zait"

# unai eta lagun berezi bat

## Unai eta lagun berezi bat

Bazen behin mutil bat Unai zeukana izena. Mutil hori eskolara inoiz joan gabea zen. Egun batean basora joan zen eta zizare bat aurkitu zuen. Zizare horrek berba egiten zuen eta oso argia zen.

Zizareak Unaieri galdetu zion:

-Zu inoiz joan zara eskolara ala?

-Ez niri ez zait gustatzen eskolara joatea, horregatik ez noa eskolara.



Plan bat pentsatu zuen mutil horri laguntzeko. Lagunen artean lagundu behar da.

Zizareak makina bat egin zuen. Makina horrekin garuneraino heldu daiteke.
Gauean, umea lotan zegoenean zizarea belarrira joan zen eta garuneraino makina sartu zuen. Orduan arkor-arkor garunetik kanpora joan zen.
Biharamunean Unai oso pozik esnatu zen eta gurasoengana joan zen eta esan zien:



-Gaur eskolara joango naiz.
Unairen gurasoak oso harrituta geratu ziren eta aitak esan zion:
-Oso ondo Unai, ideia ona da. Lehenengo motxila hartu behar duzu.



Egun hartatik aurrera Unai beti oso pozik joaten zen eskolara eta zizarea Unairekin bizi zen bere etxean.

L.H. 2.zikloa



## Iker Ansotegi Vallejo de Olejua

"Niri aitarekin mendira perretxikotara joatea gustatzen zait gehien"

# Moesen bitxia

Moesen Bitxia

Bazen behin Moes deitzen zen mutiko gazte bat. Trebea, argala eta bizkorra zen. Egun batean lagunekin mendirantza zihoala kobazulo bat ikusi zuen. Bere lagunak ezin izan ziren sartu baina bera barrurraino sartu zen. Bertan altxor ikaragarria zegoen. Baina pirata talde bat ere. Moes altxorra hartzera zihoala piratak bazkari jaten hasi ziren. Pirata maltzurrek itsasontzi bat zuten handik hurbil eta Moes itsasontzira sartzea lortu zuen. Moesek itsasontzitik jauzi egin zuen eta altxorra hartu zuen. Mutikogaztea, trebea zenez altxorra kobazuloko sarrerara eraman zuen. Piratak sarreran intrigatuta geratu ziren. Gazteak pallora hartu zuen eta sarreraren ondoan utzi zuen. Eztanda egin zuenean, altxorra hartu eta lagunengana abiatu zen. Ez zuen altxorra galdu nahi. Altxorra uharte batean utzi zuen, dortoka indartsu baten ondoan. Urte bat geroago, altxorra bila joan zen. Baina konturatu zen, ez zegoela bertan. Dortokak lekuz aldatu zuen. Dortokari jarraitu, eta altxorra aurkitu

zuen. Ireki egin zuen eta bertan, bitxirik ederrena topatu zuen. Bitxi hura famatua egin zen erreinu osoan, eta neskatorik ederrenak hurbiltzen zitzaizkion ezkondu nahian. Moes ile horidun eta begi urdindun batekin maitemindu eta ezkondu egin zen. Moesen ezkontza egunean gonbidatuen artean piratak agertu ziren. Mutiko gazteak piratek dena apurtuko zutela pentsatu zuen. Baina ez zen horrela gertatu. Denak lagun egin ziren. Moes eta neska hura ezkonduz gero, denak dantzan hasi ziren





L.H. 2.zikloa

## Paul Aberasturi

"Nire lagunekin futbolera jolastea dut gustoko eta handitan arkitektoa izatea gustatuko litzaidake"

# Rai handikia




Bazen behin Euskal Herriko herri txiki batean, Rai izeneko mutiko bat. Hamar urte zituen. Gehien gustatzen zitzaiona futbolera jokatzea zen. Bere ikastolako futbol taldean jokatzen zuen eta zoriontsu sentitzen zen jolasten zuen bakoitzean. Gainera, taldeko futbolaririk onena zen eta gol asko sartzen zituen. Ikastetxeko neska guztiak joaten ziren partida guztietara bera ikustera.



Gero eta harroagoa bihurtzen joan zen, onena zela uste zuen eta bere taldekoak txarrak zirela. Orduan, bere herriko futbol talde onenean sartu

nahi zuen. Bere lagunak utzi eta futbol taldean sartzeko frogak egitera joan zen. Oso zailak ziren baina gutxigatik gainditu zituen. Baina talde berrian jokatzen hasi zenean konturatu zen denak bera baino jokalari hobeak zirela. Horregatik entrenatzaileak ez zion zelaira ateratzen jokatzera eta gehien gustatzen zitzaion gauza egin gabe geratzen zen, futbolera jolastea. Nahiz eta entrenamenduetan gogo biziz saiatu, beti geratzen zen aulkian partidak jokatu gabe. Mutikoa gero eta atsekabetuago zegoen. Faltan sumatzen zituen: bere taldea, lagunak, futbolean jokatzea, golak sartzea...
Orduan, ikastetxera bueltatu zen, damututa zegoela esanez eta mesedez berriro onartzeko lehengo taldean. Baina ezezkoa eman zioten. Horrela igaro zuen Raiek ikasturte guztia futbolean aritu gabe.

Azkenean, Rai konturatu zen hobe dela

daukazunarekin konformatzea, ez gehiago nahi izatea eta ezer gabe geratzea.
Egia hala gezurra begi bien artean sudurra.

